


## 4.3. MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA

### 4.3.1. Ikasleen banaketa konpetentzia mailen arabera

Jarraian Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen banaketa aurkezten da konpetentzia mailen arabera matematikarako konpetentzian:

#### 5. grafikoa. Ikasleen portzentajezko banaketa konpetentzia mailen arabera. Matematikarako konpetentzia. Lehen Hezkuntzako 4. maila



#### 4.3.2. Matematikarako konpetenziaren Lehen Hezkuntzako 4. mailako konpetentzia mailen deskribapena

##### Hasierako maila

##### Erdi-maila

##### Maila aurreratua

Maila honetan dagoen ikasleak zenbakien oinarrizko ezagupenak zenbakiak irakurtzeko, idazteko, konparatzeko eta ordenatzeko erabiltzen ditu. Eragiketa bateko problema oso sinpleak ebazten ditu batuketa, kenketa edo biderketa erabiliz, baina sarritan arazoak izaten ditu eragiketa bat baino gehiago eskatzen duten problemak ebazteko. Objektu ezagunen luzera neurrien estimazioak egiten ditu eta espazioan kokagune ezberdinak antzematen ditu. Kasu gehienetan, egoera sinpleetan tauletako eta grafikoetako datuak elkartzeko gai da.

##### Hasierako maila

##### Erdi-maila

##### Maila aurreratua

Maila honetako ikasleak, hasierako mailan deskribatutako trebetasunez gain, batuketak, kenketak edo/eta biderketak egitea eskatzen duten problemak aise eta estrategia ezberdinak erabiliz ebazteko gai da. Igarkizunak eta logika eta eragiketa-arrazoiketako problema sinpleak ebazteko gai da. Batze eta biderkatze-egoeren inguruko problemak bi eragiketa ezberdin erabiliz ebazten ditu. Ohiko egoeretan magnitudeei eta neurriei buruzko informazioak interpretatzen ditu, eta neurriei buruzko problemak unitate ezberdinekin ebazten ditu (dirua, pisua, luzera, edukiera, denbora). Espazio-adierazpenaren oinarrizko sistemak erabiltzen ditu espazio fisikoari dagozkion informazioak interpretatzeko eta lantzeko; arazoiketa espazialeko problema sinpleak ebazten ditu. Figura geometrikoak elkarren artean bereizten dituzten ezaugarri batzuk identifikatzen ditu. Tauletako eta grafikoetako informazioa lotzen du, eta problemak ebazteko erabiltzen du. Matematika-gai ezberdinen arteko loturak egiteko gai da, eta horri esker nolabaiteko konplexutasuna duten ariketak eta problemak segurtasunez ebatz ditzake.

##### Hasierako maila

##### Erdi-maila

##### Maila aurreratua

Maila honetan dagoen ikasleak, aurreko mailetako gaitasunez gain, arazoiketa landuagoak erabiltzen ditu, oinarrizko lau eragiketako batzuk (zatiketa barne) ebaztea edo magnitude bateko unitateak bihurtzea eskatzen duten problema originalak eta matematika-egoera konplexuagoak ebazteko. Oro har, egoera-arazoei aurre egiteko eta ebazteko segurtasuna du eta, baita ere, egindako kalkuluak eta emaitza matematikoki adierazteko.

Jarraian, Lehen Hezkuntzako 4. mailarako zehaztu diren Konpetenziaren hiru dimentsioetako adierazleak eskaintzen dira, hiru konpetentzia mailen deskribapena osatzeko asmoz.

## 4.3.3. Dimentsioetako adierazleak Lehen Hezkuntzako 4. mailako kompetentzia maila bakoitzean



## HASIERAKO MAILA

## Oro har, ikasleak:


- Zenbakien oinarrizko ezagupenak erabiltzen ditu.
- Oinarrizko zatiketen adierazpen grafikoak antzematen ditu.
- Neurrien estimazio oso sinpleak egiten ditu.
- Espazioan kokagune ezberdinak antzematen ditu.
- Tauletako eta grafikoetako datuak elkartzen ditu oso egoera sinpleetan.
- Eragiketa bakarreko problemak ebazten ditu batze eta biderkatze-egoeretan.



## ERDI-MAILA

## Oro har, ikasleak:

- Zenbakien oinarrizko ezagupenak erabiltzen ditu, zenbakizko mezu sinpleak interpretatzeko eta ulertzeko eta igarkizun txikiak eta zenbakizko jokoak ebazteko.
- Problemen ebazpenean bi eragiketa ezberdin erabiltzen ditu.
- Magnitudeei eta neurriei buruzko informazioak eta mezu sinpleak interpretatzen ditu eguneroko egoeretan.
- Espazio-adierazpenaren oinarrizko sistemak erabiltzen ditu espazio fisikoan kokaguneak, mugimenduak eta ibilbideak interpretatzeko.
- Figura geometriko ezberdinak antzematen ditu beren ezaugarrien deskribapenean oinarriturik.
- Figura ezberdinetan simetria sinpleak identifikatzen ditu.
- Era ezberdinetako problemak ebazten ditu: neurriak, arrazoiketa espaziala, zenbaketa sistematikoa eta abar.



## MAILA AURRERATUA

## Oro har, ikasleak:

- Problemak ebazten ditu eragiketa ezberdin batzuk (zatiketa barne) erabiliz.
- Magnitude bereko unitaterik arruntenen arteko bihurtetarako egiten ditu, eta problemak ebazteko erabiltzen du.
- Egindako kalkuluak eta planteatutako ariketen edo problemen emaitza matematikoki adierazten ditu.

## MATEMATIKARAKO KOMPETENTZIA

#### 4.3.4. Item liberatuen adibideak


Jarraian, item edo galdera batzuen hainbat adibide aurkezten dira. Horiek Matematikarako kompetenziaren ebaluazio probetan erabili dira.

Galderari dagozkion testu osoa eta galderaren planteamenduz gain, zein kompetentzia mailarekin lotzen den ere adierazten da. Kasu batzuetan erantzun zuzena ematen da eta, galdera irekia denean, galdera hori ebaluatzeko erabili diren zuzentzeko-irizpideak.



#### URTEBETETZE-EGUNA

Lararen urtebetetzea da eta bere aitak kiwi tarta bat egin du. Tarta irudian dagoen bezala zatitu du.



01

Ondoren duzun zatia oraindik ez dute jan.

L4ME0334

Zein zatirik adierazten du oraindik jan ez duten tarta zatia?

- A.  $1/4$
- B.  $1/3$
- C.  $1/2$
- D.  $3/4$



#### ITEMAREN DESKIPZIOA


- **Dimentsioa:** 1. Kopurua.
- **Azpi-kompetentzia:** 1. Oinarrizko zenbakizko ezaguerak erabiltzea, eguneroko bizitzako hainbat egoeratan sortzen zenbakizko mezuak eta informazioa interpretatzeko, ulertzeko, sortzeko eta komunikatzeko eta, halaber, zenbakizko arrazoinamenduko egoera korapilatsuei aurre egiteko.
- **Itemaren helburua:** Oinarrizko zatikien adierazpen grafikoa irakurtzen du (izendatzaile hauek dituztenak: 2, 3, 4, 5, 10).
- **Erantzun zuzena:** A.  $1/4$ .
- **Kompetentzia-maila ebaluazio diagnostiko 2009an:** Hasierako maila.

02


Lararen lagun batek beste tarta bat ekarri du eta asko gustatu zaie simetrikoa delako. Hurrengo irudietako batean tarta horren erdibanaketa erakusten da.

L4ME0342

Adieraz ezazu zein tartak dauzkan bi aldeak simetrikoak.




### ITEMAREN DESKRIPIZIOA

- **Dimentsioa:** 2. Espazioa eta Forma.
- **Azpi-kompetentzia:** 5. Forma eta erlazio geometrikoen ezaguera erabiltzea, eguneroko egoerak interpretatzeko, deskribatzeko eta ebazteko.
- **Itemaren helburua:** Simetria sinpleak identifikatzen ditu irudietan.
- **Erantzun zuzena:** D. 
- **Kompetentzia-maila ebaluazio diagnostiko 2009an:** Erdi-maila.



## UDAL POLIKIROLDEGIA

Udal kiroldegian kirola egiten duten umeen datuak ondorengoak dira:



ADINA	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16
Mutilak	14	18	21	24	27	35	38	40	29	27	30	35
Neskak	12	15	17	14	15	21	36	28	31	30	26	30
Ikasleak GUZTIRA	26	33	38	38	42	56	74	68	60	57	56	65

03

Zenbat 14 urteko neskek egiten dute kirola polikiroldegian? Aukeratu erantzun zuzena.

L4ME0101

- A. 14
- B. 27
- C. 30
- D. 57

### ITEMAREN DESKIPZIOA

- **Dimentsioa:** 3. Aldaketak, Erlazioak eta Ziurgabetasuna.
- **Azpi-kompetentzia:** 6. Datuak interpretatzearekin eta horiek antolatzearekin zerikusia duten problema errazak formulatzea eta ebaztea.
- **Itemaren helburua:** Sarrera bikoitzeko koadroetan eta grafiko sinpleetan adierazten diren datuak identifikatzen eta interpretatzen ditu, eta datuen arteko erlazioak ezartzen ditu.
- **Erantzun zuzena:** B. 8.
- **Kompetentzia-maila ebaluazio diagnostiko 2009an:** Hasierako maila.

04

9 urteko 42 kirolariak txangora joan dira eta 294 € ordaindu dute guztien artean.

Zenbat diru ordaindu du kirolari bakoitzak?  
Aukeratu problema ebazten duen eragiketa.

- A.  $294 \times 42$
- B.  $294 : 42$
- C.  $294 - 42$
- D.  $294 + 42$

L4ME0105

#### ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **Dimentsioa:** 4. Problema ebaztea.
- **Azpi-kompetentzia:** 8. Problema-egoera irekiak, matematika-ikerketak eta lan-proiektu txikiak ebaztea, horretarako, zenbait estrategia erabilia, eta ikaskideek elkarri lagunduta; eta ebazpenean erabilitako prozesua eta ondorioak ahoz azaltzea.
- **Itemaren helburua:** Ezaugarri desberdinetako problema irekiak ebasten ditu.
- **Erantzun zuzena:** B.  $294 : 42$ .
- **Kompetentzia-maila ebaluazio diagnostiko 2009an:** Hasierako maila.



## MOZORRO LEHIAKETA

Soniaren ikastetxeko 3. eta 4. mailako ikasleek aurtengo inauterietako gai bezala "Munduko kulturak" aukeratu dute eta kultura ezberdinekin lotutako mozorro-jantziak prestatu dituzte. Aukeratutako kulturak hauek dira: txinatarra, indiarra, eskimala, afrikarra eta azteka.



Hurrengo taulan kultura bakoitza zenbat ikaslek aukeratu duten azaltzen da:

Munduko kulturak	Ikasle kopurua
Txinatarra	50
Indiarra	10
Eskimala	25
Afrikarra	8
Azteka	7

07

Kultura eskimala 25 ikaslek aukeratu dute.

L4ME0339

Zein kultura aukeratu du ikasle kopuru horren bikoitzak?

- A. Indiarra
- B. Txinatarra
- C. Azteka
- D. Afrikarra

### ITEMAREN DESKRIPTIONA


- **Dimentsioa:** 1. Kopurua.
- **Azpi-konpetentzia:** 2. Zenbaki arruntekin kalkuluak egitea, oinarrizko eragiketen esanahia eta propietateak erabilita eta kalkulu-mota egokiena zein den segurtasun osoz aplikatuta.
- **Itemaren helburua:** Batuketa-, kenketa- eta biderketa-taulak erraz erabiltzen ditu buruzko kalkulu automatikoetan.
- **Erantzun zuzena:** B. Txinatarra.
- **Konpetentzia-maila ebaluazio diagnostiko 2009an:** Hasierako maila.

08


Zein grafikotan azaltzen da zehazki ikasleen aukera?

L4ME0338


A




B




C



D



## ITEMAREN DESKRIPIOA

- **Dimentsioa:** 3. Aldaketak, Erlazioak eta Ziurgabetasuna.
- **Azpi-konpetentzia:** 6. Datuak interpretatzearekin eta horiek antolatzearekin zerikusia duten problema errazak formulatzea eta ebatzea.
- **Itemaren helburua:** Grafiko sinpleetan adierazten diren datuak identifikatzen eta interpretatzen ditu, eta datuen arteko erlazioak ezartzen ditu.
- **Erantzun zuzena:** B. 
- **Konpetentzia-maila ebaluazio diagnostiko 2009an:** Hasierako maila.